

# EUSKAL SINESKERAK (III)



JUAN MANUEL ETXEBARRIA

**JUAN MANUEL ETXEBARRIA**

**EUSKAL  
SINESKERAK  
(III)**

**IBAIZABAL**

Liburu honek Eusko Jurlaritzako  
Kultura eta Turismo sailaren  
laguntza jaso dau

Eragilea: Fermin Iraolagoitia

Egilea: Juan Manuel Etxebarria Ayesta

Marrazkilaria: Arrastalu

Inprimaketa: Igarri, S. C. L. - Rafaela de Ybarra, - Deusto-Bilbao

I. S. B. N.: 84 - 96399 - 07 - 6

Depósito legal: BI - 2.712 - 89

Argitaratzailea: I. K. A., Euba. Tnoak: 673 42 46.

Argitaletxea: Ibaizabal - 147

## AURRE-BERBAK

Idazten danean, beti egiten da zeozergaitik, zeozertarako eta baten batentzat.

Azkenengo hamarkada biotan, etorkizuneko euskera batuaren atea zabaldu da, ate estua, eta danok eroan gura gaitue ate eta ate-oste estu horretarik zehar.

Atzera begiratzen badogu, hor be baditugu beste ate batzuk, zabalak, erosoak eta belaunaldiz belaunaldi herriak bere galbahetik eralgitakoak.

Etorkizuneko atea zabaltze horrek ez dau lehengo aterik zarratu behar, zabalik euki eta behar dan guztia etorkizunera bideratu baiño.

Hortixik goaz oraingo honetan. Aurrean dituzun ipuinok, herri-herrikoak jatzuz, aberastasunez beteak, bizi biziak eta edozeinek irakurtzekoak ipuin bakoitzaren atzeko hiztegiak lagun.

Euskaldunen espazio kulturala, euskera barruan dala, zabala eta aberatsa izan dogu. Honeetan ipuinotan, beren beregi jo deusut espazio zabal horretako gure EUSKAL SINESKERA zaharretara, gu geu be, beste herri batzuk baino gitxiago ez garalako.

Euskera aldetik, Bizkaiera gaurkotuaz natorkizu, Bizkaiera aberatsa dalako eta Bizkaierari zor deusagulako gurasoengandik hartu dogun hagea.

Bizkaia Euskadi bada, Bizkaiera euskera da eta Bizkaieraren ateak ez dau ezelan be batuarena zarratzen, nasaitu eta osotzen lagundu baino.

Euskeraren etxe zaharrea, han, hor, hemengo euskaldunak bizi gara eta etorkizunari begira ezin dogu betiko etxe zaharra bota eta barria egin, zutik dagoela berriztatu baino. Bizkaierak, sakontasunean ezagutuz gero, hainbat et hainbat gauza eder dauka barritze horretarako. Aikomen batzuk ipuinotan. Irakurri, gozatu eta BIZI euskera bizia batasunaren bidean.

«Zahar on egin daitela»

# Sorgin Denporetakoak

Udabarriko egun zoragarri baten, neure aitita eta biok Petralandako kortabasoko mugarria ikusten joan ginan. Bazkal ostean urten gendun eta txipi-txapa giñoiazan mendia gora bata bestea baino pozago.

Joanean-joanean, aititak gogora etorkion guztiari eragoion eta nik neuk nahiko neukan bere erretolika guztia entzuteaz.

Petralandako kortabasora noiz helduko gengozala, sorginen kontuak atera eustazan eta badinotsat:

—Aitita, zer difnost beorrek? Nortzuk dira ba horreek sorginok?

—Nortzuk ziran? —inostan irribarreka—. Ba, Lehena-go, sorginak eta pertsona sorginduak ei egozan. Nik neuk be ez dakit patxadaz nortzuk eta zelangoan ziran. Gure zaharrak esaten euskuen era askotara sorginduten zirala pertsona batzuk.

—Kontatu beist, esan beist zelan aitita! —esan neutsan—, hitano, berorrek gura badau!

—Ba, beitik, gehienetan begizkoa izaten zolan edo ez-pabere maldizioa, eleizeari hiru buelta emon gauez, txarto bateatu, sorgin-jantziak erabili, sorgin-orratzak lortu edo, zera, deabruari akelarrean eperdian mun egin... eta holantxik.

—Aitita, «begizkoa» esan deust beorrek, zer deusku ba horrek guri?

—Jakina, hik ezin heinke holangorik jakin, nik neuk be ozta-ozta jakiat eta, baina tira, zerbaist esango deuat. Beitik, munduan beti jagok aurrekoa ondo ikusi gura ez joanik eta holan izaten zoanean horreek gaiztook deseo txarra edo maldizioa botaten jebilzan jaunekobean eta horreek sorgintzen ei juezan batez be makalik egon eta burutik eiten juenak. Eta holakoren bat sugertatzen zoanean, andrazkoa ala gizonezkoarena dan jakiteko hori begizko hori, sartenean beruna urtu eta gero ur hotzetara botaten juen eta handik jakin gitxienez andrazkoa ala gizonezkoren baten deseo txarra dan. Eta honango fetxo-

riak, sorginduekaz ez eze, ume bat hilten zoanean be begizkoaz hil zala esaten juen baina gaur hori ez jot inok sinesten, begizkoaz hil zala esaten juen baina argitasun faltagaitik, beste edozein gaixok joko joazan, baina orduko ezjakinentzat dana zoan begizkoa edo antzekoren bat, gixa-joak halakoak!

Gaur be oraindino batek baino gehiagok sinestu edo erdi sinestu be egingo jok, eta hau ez dok gaurko kontua, lehenagoko esaera zaharrak be haxe dinok: «Diranik ez da sinestu behar, ez dirala ez da esan behar».

Ni neu bitsetan niñoiari aititari entzuten eta itaunez josi egiten neban. Gehiago jakin gurean badiñotsat:

—Aitita, baina, zer itxurakoak edo zer itxuratan agertzen ziran ba sorginok?

—Neuk banenkik! —erantzun eustan—. Nik neuk entzuteak bajaukazat baina, zer esango deuat ba! Entzuteak bajaukazat euki batzuetan katu baltzaren itxuran ibiltzen zoazela suterik sute gaubetan, edo muskerra, saiak, txikoa, sugea eta nik ez jakiat zenbat animalien itxuran agertzen zoazen be... batek bajakik!

—Katu baltza esan dau beorrek aitita?

—Bai, katu baltza. Han gure auzoan gertatu ei zoan. Baten seguru, andre finen bat egon ei zoan eta eguneko behar guztiak egin eta gero goruetari ekiten ei eutsan sutoondoan baina orduzarrak ekin be. Baina gau barruan, katu baltz ganorabako bat agertuten jakoaan sute bazterre-



tik eta bildurtia izan ez arren, ikaraz bete joan eta urrengo goizean bere senarrari esan jotsan:

—Hi peru, gaubokaz katu baltz bat agertuten jatak goruetan nabilela eta ez dirudik parte onekoa.

—Ba, gaur gauean ni neu geratuko nona goruetan hire heure soinekoekaz —erantzun eutsan senarrak—, eta niri ez jaustak adarrik joko, ez eta burlazarrik egingo.

Esan ta egin! Eguna joan eta gaua heldu zanean, senar horrek, hartu goruetako tresnak, jantzi gainetik emaztearen soinekoak eta hasi zoon linoa iruten.

Danak oheratu ziranean eta kanpoan kikoak, txirri-txirriak eta mozoloak baino entzuten ez zirala, hara han non agertzen jakon katu baltz ganorabako hori buztana gorantza dauala eta zankal osteak igurtzen.

Oboen-oboen hiru lau buelta emon jautsazan katu baltz horrek gizon gorulariari eta halako baten badinotsak:

—Gizona eta goruetan?

—Katua eta berbetan? —erantzun gizonak—.

Eta hori esanaz batera, gizonak hartu surteko burduntzi gorria, joten jok buru buruan... eta hurrengo goizean auzoko atsoen batek aurpegi guztia mankatuta ei jeukan seguru.

Handik kontua, hortik ipuina, hemendik jazoera, heldu ginan kortabascra eta mugarri bila genbilzan Petrandako pagadian.

Harriak pausuko aurkitzen genduzan aurkitu be baina geureak kostatu jakuzan kortabasoaren mugarri boskoi-tzori topetan.

Niretzat harriak guztiak ziran antzerakoak eta horretan badidotsat aiteitari:

—Zelan daki berorrek ba mugarria zein dan?

—Jakingo ez joat ba? —erantzun eustan irribarrez—. Begiratu hegik, honek erdiko harri honek baietz euki azpian ikatza edo teila kaskuren bat!

Aititak orduan kontuz kontuz atera eustan ha harria eta egia zan, teila kasku bat eukan euki be eta barrero sartu eban aurrerantzarako.

Nire aita eta auzoko beste sasoko gizon batzuk be han ebilkuzan urrun barik batzuk ikatz egosten eta beste batzuk karobietan karea egiten.

Iluntzerantzean nire aita mendia behera etorren eta gu geugaz alkartu zan. Ezarri zan geure ondoan eta zigarro bat egiten hasi jakun.

Aitak zigarroari eragoiola, aititak kontatutako guztiak aipatu neutsazan eta hatan badinost:

—Eta ez deutsuz kontatu hementxe Petralandan egiten ziranak?

—Zer egiten zan ba aita?



—Ba, entzutea daukadanez, eta aititek nik baino hobeto jakingo dauz, hemen, hementxe seguru, akelarre edo holako gauzak egiten ei ziran. Sorgin guztiak, deabrua aker itxuran erdian dabela ikaragarritzko dantza, zarata eta nik ez dakit zer be gehiago egiten eben suguru. Astelehen, eguazten eta barikuetan etorten ei ziran bide-kurtzeetako sorgin guztiok aker-deabruari eperdian mun egiten.

Hau dala eta, nok kontatu eustan baino ez da, baina entzutea daukat, neska gaztetxuren bat sorgindu egin gura ebela aitaren isilean. Sorgin-orioz igurdi eben neska hori eta eurentariko batek esan ei eban: «Sasi guztien gainetik eta laino guztien azpitik» harik eta akelarrera heldu arte.

Aita, arteak hartu ezinik, sorots egiten egoan eta besteok akelarreko bidea hartu eutsenean, berak be hartu burdinazko ezten luze bat, gorputza igurdi besteok itxitako orio hondarrakaz eta esan behar zana ez dau ba okerretara esaten! Eta gixajoa «sasi guztien azpitik eta laino guztien gainetik» guztiz urratuta eta zorabiatu heldu zan besteekaz nahaste antzean akelarre haretara.

Han egozan danak, aker-deabrua erdian eta sorgin guztiak inguruan. Bere alaba be han eukien danen erdian.

Aker-deabruari eperdian mun egiteko garaia heldu zanean neskearen aita bere alaba baino lehenago plantau zan mosu orde eztena sartu eta hiltzeko. Ilunetan inok ez eban ezagutu eta akerraren atzera heldu zanean sartzen deutso indar guztiaz ezten hori eperdi eperditik eta ene! Horra hor zer dinotson deabruak gizonari: «Hi, hurrengoan bizarra hobeto moztu niri neuri eperdian mun egin baino lehen».

Gizonak orduan, ikusirik ez dagola deabrua hilterik, alauri baten hasi zan Jaungoikoa gedarrez eta bere alabari errezetako esanez. Eta holantxe salbau zala diño e ha neskea, aítak eskutik goratu eta oilarrak jo arte gaztaina harro baten gaua eginda.

Honeek akelarreak txarto ikusita egozan herrian eta batez be eleiz-gizonen artean. Hor, Erdi-Aroan, Inkisizioak ikaragarritzko zigorrak iminten ei eutsiezan, surten errerainoko guztiak.

Gaur egun, ipuin moduan bakarrik entzuten dira edo lur-izenetatik dakigu gitxi gora behera non egiten ziran. Irakurri be irakurri leikez liburu baten baino gehiagotan.

Baina tira, kontuak kontu dira eta izan be izan dai-tezala, goazen etxera berton gautu ez dakigun.

Aítak kontatu-akabau euskunerako akelarreko kontu hori eleizako kanpandorreko abemariak entzun genduzan.


Aítitak orduan, txapela kendu eta angelus errezeteari emon eutsan. Gero etxera bidea hartu gendun.

Etxera heldu ginanerako, amama be itxaroten geunkan etxe atxinean eta badinosku:

—Bazatozie?

—Bai amama, erantzun neutsan —eta pozik gainera. Ederra zer izan da gaurko arrasti hau!

Arrastia ederra izan bazan, iluntzea ez zan txarragoa, hidergi betea zan eta ia-ia eguna zirudian.



Danak be pozik egozan etxe-portalean eta mutikoaren gogokoa izango zala baekianez bere aitak badinotso amari:

—Kontau beio hori hitargiaren kontu hori!

—Bai, amama, bai, irakiten nago berorreri entzuteko!

Horretan, amama, ezarri zan aurki zahar baten ni bere altzoan harturik eta hitargiari adi jarri ninduan esanez:

—Aldi baten, eguzkia eta hitargia andra-gizonak ei ziran eta Martiko hidergi barriko gaulendian, eguzkia sar-tzamendian noiz sartuko dagoela, badinotso eguzkiak hilargiari harrokeriaz beterik:

—Ikusten dona mundua, egunean baino egunean ederrago?

—Bai, ikusiko ez joat ba!

—Ba hori edertasun hori neure argi eta beroari esker!

—Bai, eta nire neure gaubetako inontzari!

Hori entzun baeutsan ba ze, hasarratuten jako eguzkia, hartzen dau esku biak bete txingar gori bere barrutik eta PLAST! aurpegi aurpegira bota eutsazan txingerrok hitargiari eta erreunez bete aurpegi guztia. Oraintxe eta oraintxe be ezagun dauz hareek erreuneak, aitutea baino ez dago hilargiari gaur letxe hidergi betea danetan.

Baina eguzkia hain ikusten eban berde, bildur-sartu

eginda egoan hitargia eta karran hasi zan. Eguzkia orduan atzerikara gainetu jakon.

Joan eta joan bata bestearen atzean, hilgora, hidergi bete, eta hilbera guztian eragoion eguzkiak hitargia kuxetan eta hogeita zortzigarren egunean ia-ia atrapatzeko eukala, ez deutso ba hitargiak bere burua gordetan!

Eguzkiak orduan, zuzian, aurreak hartu eutsazan eta egunak joan egunak etorri hitargia atzerikara ikusten eban.

Orduan, atzera egin ezin eban lez, arin eragoion eragon be hitargia barriro atzerikara kuxetako eta horretarako beste hogeitazortzi egun behar izan ebazan, baina hilargiak ostera be bere burua gorde.

...Gaur be oraindino or ei dabilz oboen-oboena bata bestearen atzean!

Nik neuk, entzunak entzunda, zer esan be ez nenkian. Bihotza bete beterik neukan eta nigan argi bizi bat sortu zan, zein? eta EUSKALDUNTASUNA!

## «ZAHAR ON EGIN DAITELA»



**Abemariak:** Iluntzeko kanpaiak.  
**Adarra jo:** Burlazar egin.  
**Aitutea:** Begiratudeta.  
**Akelarre:** Sorgin-jaia.  
**Alauri:** Zarata handia.  
**Arrasti:** Arratsalde.

**Atxinean:** Aurrean.  
**Atzerikara:** Atzetik.  
**Bajaukazat:** Badaukadaz (zuka).  
**Batek bajakik:** Auskalo.  
**Beio:** Egiozu (zuka).  
**Beist:** Egidazu (zuka).



**Berde:** Haserre.  
**Beruna:** Plomoa.  
**Bildur-sartu:** Bildurkilik, bildur handia.  
**Bitsetan:** Oso pozik.  
**Burlazar:** Adarra joten.  
**Burua gorde:** Estaldu, estali.  
**Dona:** Dozu (zuka femeninoa).  
**Eragoiola:** Ekiten eutsala.  
**Eragoion:** Ekiten eutsan.  
**Erretolika:** Berbalotsa, berba asko.  
**Erreune:** Erreta geratzen dan marka.  
**Ezagun:** Begien bistan.  
**Eztena:** Punta zorrozkun burdina-tresna.  
**Gainetu:** Ganean plantatu joteko edo...  
**Gaulendia:** Iluntzea.  
**Gautu:** Gaua heldu.  
**Gedarrez:** Dei adarrez.  
**Geureak:** Asko.  
**Goratu:** Heldu.  
**Goruetan:** Lanea edo linoa iruten.  
**Heinke:** Zeinke (zuka).  
**Hilbera:** Hitargia gitxitzen «Cuarto menguante».  
**Hilgora:** Hitargia handitzen «Cuarto creciente».  
**Hidergi betea:** Gaztelerazko «Luna llena».  
**Hitargi:** Hilargi.  
**Horretan:** Halako baten.  
**Inostan:** Esaten eustan.  
**Inontza:** Ihintza.  
**Irakiten:** Gogo handiz.  
**Itaunez josi:** Itaun asko egin.  
**Jagok:** Dago (zuka).  
**Jaunekobean:** Geratu barik.  
**Jautsazan:** Eutsazan (zuka).

**Jebilzan:** Ebilzan (zuka).  
**Jeukan:** Eukan (zuka).  
**Joat:** Dot (zuka).  
**Joazan:** Ebazan (zuka).  
**Jotsan:** Eutsan (zuka).  
**Juen:** Eben (zuka).  
**Juezan:** Ebezan (zuka).  
**Karobia:** Kare-harriaz karea egiteko zuloa.  
**Karran:** Arineketan.  
**Kikoa:** Sapokumea.  
**Kortabaso:** Tropietate biribila, mugarria erdian.  
**Kuxetan:** Arrapatzen.  
**Letxe:** Lez.  
**Mankatuta:** Zaurituta.  
**Mendia behera:** Mentidik behera.  
**Mendia gora:** Menditik gora.  
**Mun:** Mosua.  
**Nahaste:** Batera.  
**Noiz helduko:** Laster heltzeko.  
**Noiz sartuko:** Laster sartzeko.  
**Nona:** Naiz (zuka femeninoa).  
**Oboen-oboen:** Bueltaka-bueltaka.  
**Orduzarrak:** Ordu asko.  
**Ozta-ozta:** Justu-justuan.  
**Pausuko:** Pausu bakoitzeko, errezkan.  
**Plantau:** Kolokatu.  
**Saia:** Txori handi bat.  
**Sartzamendia:** Horizontea.  
**Sasoiko:** Indartsu.  
**Seguru:** Antza, antza danez.  
**Sorots egin:** Bigilatu.  
**Surteko:** Su arteko.  
**Surten:** Su artean.  
**Txikoa:** Zaldikumea.  
**Zoanean:** Zanean (zuka).  
**Zorabiatirik:** Mareaturik.  
**Zuzian:** Oso arin.

## Zapatea Hodeietara

Urtero-urtero, udako oporretan aititaren baserrira joaten nintzan eguzki gozoa eta haize garbia hartzen.

Aititaren baserria oso polita zan eta inguru ederrak eukazan. Lanik ez zan falta eta neuk ere laguntzen neutsan besterik ez bazan iturriko ura ekarten edo behiei euliak kentzen lizar edo haltz txorbel batez.

Benetan ederra zan baserriko giroa eta pozik baino pozago nengoan bertako euskera ederra eta aberatsa entzuten eta egiten.

Egun baten aitita eta biok solorik solo ginoiazan asto eta guzti bedarretan.

Etxe inguruko solo gehienak landa egozan ete zenbat gura bedar egoan egon ere.

Han nenbilen bedartzarik bedartza txirritxirriak harapatzen eta nekatu nintzanean esan neutsan aititari:

—Hemengo landa guztietako bedarragaz zer egingo dozu ba?

—Ba, zati bat berdean jan eta beste guztia sikatu negurako, neguan ganaduei emoteko, negu luzean asko behar izaten da eta.

—Aitita, benetan ere, honeek dira landa arloak!

—Bai, gaur landa dagoz baina lehen ez. Lehen garia eta artoa ereiten genduzan eta urterako lagin edo gehiago hartzen genduan. Garia eta artoa gauza ederrak ziran orduko garaian, gaur etxera datorkigu ogi-saltzailea baina.

Kontuak atera gariak eta artoak zelako garrantzia euki-ko eben, herriko abadea, soloak bedeinkatzen etorten zan baserririk baserri, ekaitz edo trumoi-harriak alperrik galdu ez egiteko.

Hau dala eta, oraintxe gogoratu jat baten zer jazo zan gure herrian.

Urte baten, ohitura zan legez, herriko abadea soloak bedeinkatzen ebilen herri guztian zehar.

Pozik baino pozago egoan abadea gari eta arto onak baino hobek ekoizalako.

Halako baten, abadea soloei begira egoala, deabrua agertu ei jakon ondoan dotore jantzita eta badinotso:

—Urte ona e!

—Bai, ederra, Jaungoikoari eskerrak.

—Aurten harro egongo zaree daukazuezan garitza eta artotzakaz?

—Bai, pozik gagozak, egotekoa dok eta.

—Ba, zuek gari eta artotza onak eukiko dituzue baina nik badituk zaldi eta gaintekoak zuen soloak zapaldu eta lorrintzekoak!

—Neuk ere bajaukadaz hedeak hire zaldi eta gaintekoak lotzeko! —erantzun ei eutsan abadeak gogor ere gogor.

Deabrua, abadea hain gogor ikustean, berehala desagertu jakon tximistea legez.

Abadea, arduraz beterik, etxerantz etorren. Etxea eleizari deusala eukan eta etxera heldu zanean izerdi-larria sikatu eta balkoian ezarri zan.

Kanpoan bero egoan, geroago eta beroago, gerizpetan ere egon ez egiteko moduko beroa egoan, txoriak errama-

tik botateko moduko beroa, eguzkia behera etorrela zirudien...

Abadea, behin zutundu, behin ezarri, arteak hartu ezinik egoan eta ez jakozan burutik kentzen deabruaren berbak.

Handik lasterrera inguruetakoko mendi osteetatik hodeilaino zuriak agertzen hasi ziran.

Ha zan larrialdia! Zerua urdin eta inguruak zuri. Hodei lainoak geroago eta hurrago, apurka-apurka zeru urdina irentsiz.

Hodei laino zuriak baltzitzuz joiazan eguzkiari aurreak hartuz eta itxura motza hartzen joian eguraldia.

Ha zan ilundea! Zeruak lurrera etorri behar ebala zirudien munduaren azkena balitz legez.

Abadea estu eta larri baegoan, herritarrak askoz larriago euren lan guztiak alperrekoak izango ete ziran pentsetan.

Halakoren baten lehenengo oinaztua ikusi zan herri guztian eta handik gerora lehenengo trumoa. Inizituak gogor eragoion eragon be.

Herritar guztiak buruko uleak arteztuta eta ikaraz beterik hasi ziran esaten bata besteari:

—Oraintxe gagoz onak! Laster gariak ebatordu eta



AMONGST

«parte txarrekoak» haserre. Gure urteko ogia joan zan!  
Zer ikusi behar ete dogu?

Oinaztua geroago eta berdeago eta trumoia indartsuago. Euri tantakada lodi banakaren bat ere jausten zan han hor hemen.

Baseritar guztiak etxeko leiho eta balkoietan, gora adi eta dardar ei egozan seguru. Bildurraren bildurraz laino baltz artetik «zaldi eta prakagorriak» ikusten ei ebezan batetik bestera, ezbehar haren errudun «parte txarrekoak» zirala uste eben eta.

Abadea izerdi-larrian egoan baseritarrak hain larri ikustean eta pausurik galdu barik, sotanotsean, kanpandorrera joan eta kanpaiak jotzen hasi zan.

Herri guztia alkartu zan eleizan eta abadea aurretik zala otoitz egiten hasi zan.

Otoitz guztiei gitxi eritzirik, kanpora urten eta eleiz ingurutik errogatibak ere egin ebezan letaniak abestuz.

Azkenez, abadea, sakristiara joan, alba eta estola jantzi, otoitz liburua hartu eta elezportalerantz abiatu zan.

Sakristaua ere, kandela bedeinkatua eskuetan ebala, abadearen atzean joian.

Herri guztia, bildur-sartuta egoan elezportalean eta abadea eta sakristaua danen erdian bedeinkazinoa gertatzen.

Zerua guztiz ilundu ei zan eta noizbehinka zizzzt!  
zazzzzt! oinaztuak eta brummm! brummm! trumoiak.  
Munduaren azkena ez bazan, ez zan gitxiago. Holakorik!,  
danak bildurkilik!

Elezportalean egoan kuadrúa! Gizonak txapelak kenda,  
andrak negar baten, umeak zarataka ezer ulertu ezinik,  
abadea jendea lasaitzen eta sakristaua dar-dar «beste  
mutilon» bildurrez.

Halako baten, abadeak danei ixiltzeko agindurik, eta  
ahal eban lekutik indarrak aterarik, esan eutsen:

—Orain elezportale honetatik herri guztia bedeinkatu  
tuko dot eta Jaungoikoak gura dauana izan daitela!...

Eta oraindino gehiago dinotsuet, zeozerk jausi behar  
badau goitik behera, neure ortuko sagrao-barrika nagusira  
jausi daitela!, eta ez larritu, belea baltzago ez da egingo  
eta!

Hori esanda, abadeak zabaldu eban otoitz liburua eta  
hasi zan herri guztia bedeinkatzen.

Sakristaua osterá, bildurkilik, artega baino artegago  
egoan eta eskuetan eukan kandela bedeinkatua ere lurrera  
jausi jakon bere buru gainea «zaldi eta prakagorritz» be-  
terik ikusi ebanean.

Abadeak, ikusi ikusten eban sakristaua, baina ezin  
eutsan kasurik egin otoitza irakurtzen egoalako.

Orduan sakristauak, ez ekianez zer egin, estolatik  
heltzen eutsan abadeari «parte txarrekoak» zein gainetu.





A. 1965/1967

Abadea, irakurtzen egon arren, jakitun egoan sakristauari zer jazoten jakon eta otoitz egiteari itxi barik «zaldi eta prakagorriak» uxatzeko, ahal dan guztizko indarraz, ezkerreko oineko zapatea jaurti eutsen.

Zapatea boteaz batera, otoitza ere amaitu zan eta «parte txarreko» guztiak alde egin eben handik zehar laino baltz bildurgarrietan estalduz.

Zapatea lainoetaraino joan ei zan eta laino baltzak zatitu egin ei ebazan.

Une haretan, zarata handi bat entzun ei zan laino artean eta herritar guztiak gora adi egozala, goiko ur tanta-kada eta abazuza guztia, ur handiko erreka bat balitz legez, abadearen ortuko sagardo-barrikan sartu ei zan seguru.

Ha izan ei zan izatekoa! Hodei guztia barrika barruan eta soloak bake bakean! Ezin eben sinistu ere egin! Amets bat zalakotan egozan danak, baina egia zan, ikusteko be holakorik!

Eguzkiak urten eban barriro eta jende guztia negarra dariola egoan baina oraingoan pozarekin. Ez zan gitxia-gorako!

Abadea ere pozik egoan eta sakristauari lepotik heldurik irribarre ganoso egiten ei eban.

Sakristaua oraindino susto-sartu eginik egoan baina ahorik askatu ez arren, pozez beterik ikusten ei zan ikusi ere.

Urteak joan urteak etorri, batzuk dinoenez abadearen zapatea lainoetan galdu ei zan, beste batzuk ostera, artzain batek Gorbea inguruan aurkitu ei ebala dinoe.

Dana dala, lehenengo gariak udan eta gero artoak udagoiengan, zindo-zindo heldu ei ziran bakea eta alkartasuna barriro baserrietara ekarriz.

—Aitita, baina hori egia ete da ba? Nire maixuak di-noanetik oinaztua eta trumoia elektrizidadearen kontuak dira.

—Bai, badakit; gaur danok dakigu hori kontu hori, baina lehenagokoak ez eukien elektrizidadearen barririk, eta hodei baltzak «parte txarrekoen» kontuak zirala uste eben.

Mundua aurrera doa eta garai bakoitzean gerai bakoitzeko gauzak dagoz. Gaur ere nahiko oinaztu eta trumoi dago gizon artean. Bakean biziko bagina hobeto!



**Abazuza:** Ur-harriak, txingorra.  
**Artea:** Pazientzia.  
**Artega:** Urduri.  
**Bajaukadaz:** Badaukadaz (zuka).  
**Belea baltzago egin:** Txarragorik ez da gertatuko.  
**Berbak:** Hitzak.  
**Berdean:** Berde dagoala.  
**«Beste mutilok»:** Inpernuokoak.  
**Bildurkilik:** Bildur handiarekin.  
**Dar-dar:** Ikaraz.  
**Deutsala:** Ikutzen.  
**Dotore:** Majorik.  
**Ebatordu:** Edagi ordu.  
**Ekaitz:** Eguraldi txarra.  
**Errogatibak:** Eskari-otoitza.  
**Gainetu:** Gainera joan.  
**Garaia:** Aldia.  
**Hedeak:** Bridak.  
**Hotsa:** Zarata.  
**Ilundea:** Iluntasuna.  
**Inizitua:** oinaztua.  
**Jaurti:** Bota.  
**Lagin:** Beste.

**Landa:** Bedarrarekin.  
**Lorrindu:** Apurtu.  
**Lotu:** Gelditu.  
**Motza:** Itsusia.  
**Negar baten:** Negar eta negar.  
**Negarra dariola:** Negarrez.  
**Oinaztua:** Tximista.  
**«Parte txarrekuak»:** Deabrua eta inpernuokoak.  
**Pentsetan:** Pentsatzen.  
**Seguru:** Antza.  
**Susto-sartu:** Sustua oraindino kendu barik.  
**Txismistea:** Oinaztua, inizitua.  
**Txorbel:** Horri eta guztizko erramatxo bat.  
**Une:** Momento.  
**Uxatu:** Aldendu.  
**Zaldi eta prakagorriak:** Inpernuokoak.  
**Zein gainetu:** gainetu ez egiteko.  
**Zenbat gura:** Asko.  
**Zindo:** Osoan.

THE UNIVERSITY OF CHICAGO

PHYSICS DEPARTMENT

5300 S. DICKINSON DRIVE

CHICAGO, ILLINOIS 60637

TEL: 773-936-3700

FAX: 773-936-3700

WWW: WWW.PHYSICS.UCHICAGO.EDU

PHYSICS 101

PHYSICS 102

# Deabru - Txoriak Gorbeian

Negu gogor bateko egun baten, artzain bi ebilzan Gorbea ingurutik ardiak batzen edurtzaren batek goietan harrapatu ez egizan.

Ardiak negu partean esnea erasterik ere ez daukien lez, zabalik ebilzan han, hor, hemendik eta artzain bioi, txakur on eta guzti asko kostatu jaken danak pilatzen.

Gaba-iluntzerako ardi guztiak baturik eukiezan eta etxerantz etozen txapa-txapa!

Halako baten, plast!, plast!, plast!, edurra hasi zan

eta gure artzainak txakurrekaz ardiak aidatu, eta ahalean etozan.

Baina edurra zuria dala baltza da eta danon ibilpiderako oztopoa bada ardientzat askoz gehiago lana ertzak edur bolaz betetzen jakezalako euren txanka meheak edurrean barruraino sartuz.

Gorbeako puntea zurituz joian eta gure artzainak ge-roago eta larriago gaba-iluntza iluna eta edur zuriaren bi-tartean.

Artzain zaharrenak, bere nekea eta ardurea adierazi barik badinotso gazteari:

—Gaur etxera helduko ete gaituk?

—Lurmen bada bai!

—Ba, ez jakiat ba, edurra okerra dok eta ez jaukak geratzeko asmorik!

—Bai, gizona, bai! ez hadi arduratu, hau edur hau goitik-behetik helduko gozak etxera!

—Ez jakiat ba! Hi gazte eta zoro hago oraindino!

Halan eta guztiz ere aurrera egin eben eta ibili eta ibili Gorbeaipeko Lekanda-haitz ingurura heldu ziran.

Edurrak goian-behean eta geroago eta zarratuago era-goion, oinastua eta trumoia ere sarriegi gauza onerako.

Zer ordu zanik ere ez ekien eta halako baten ez ekien nondikoak baina abemarietako kanpaiak entzun ebezan.

Kanpaiok entzutean ohitura zan legez, txapela kendu eta angelus arrezeteari emon eutsien joanean-joanean denporarik galdu ez egiteko.

Ibiliak ibilita eta ahal dan guztiak eginda ere, ezin eben gehiago. Ardiak narraz joiazan edur bolaz josita eta «bee!» errukarriak dariola.

Ardiak ez eze, artzainak ere guztiz nekaturik egozan eta ez zaharra ez gaztea ez ziran gauza aurrera egiteko. Orduan artzain zaharrak badinotso gazteari:

—Hi! aurrera egitea alperrekoa dok. Hementxe aurrean jagok Supilaur koba eta bertara joan beharko joaguk ardi eta guzti!

—Ba, derrigorra badok, joan egin beharko joaguk.

—Bai, mutil, bai, bizia bat baino ez dok eta hor pasauko joaguk gaba.

Esan eta egin, ozta-ozta baina azkenean heldu ziran kobera. Koba handia zan eta danak sartu ziran barrura. Ardiak bee! egiteari itxi eta lanak astintzen hasi ziran edur bolak botateko.

Artzain biak ere nasaiago egozan leku onetik libratu ziralako eta euren morral eta zakutoetatik zeozer atera, afari antzeko bat egin eta lo apur bat egiteko etzatera joiazan.

Artzain zaharrak, ohitura zan lez, San Blasetaiko kandelak bedeinkatu bat erosten eban beti bere morralean





oinaztua eta trumoia zanerako, eta hartu kandela hori, biztu eta kobako etaka-atakan itxi eban gaba bake bakean igaroteko.

Gaba luze haretan ia-ia begirik ere ez eben itxi artzainok baina goizalderako loak bota ebazan biak.

Goizean iratzartu egin ziran baina ez berez ardien zaratetara baino.

Otsoren bat hurreratu ete zan egozan baina ez, ez egoan ez otsorik ez ezer.

Gerotxoagoan ere ardiak salto baten hasi ziran. Barrero ere begiratu eta ezer ere ez.

Ardiak artega ikustean, badezpada artzain biak kobaren atakan jarri ziran kandela biztuaren ondoan.

Handik lasterrera, non ikusten dabezan bildurgarrizko txori baltz batzuk kobara sartu gurean!

Artzain gaztea uleak arteztuta egoan baina artzain zaharra laster konturatu zan zertzuk ziran eta esan eutsan gazteari:

—Ez hadi ikaratu, mutil! Horreek txori baltzok «parte txarrekoak» dozak eta gabaz kanpotik ibiltzen dituk abemarietako kanpaietatik hasi eta harri-kanpaietararte, baina gaur ezin izan dozak sartu kobara gu biok kristauak gozak eta. Gainera hau kandela hau bedeinkatuta jagok eta horreek txoriok kristau edo kristautasunaren ezaugarri baten aurrean ez jaukiek podererik. Ikusiko dok, guk he-

mendik hanka egiten joagunean, oinaztua lez sartuko dituk barrura.

Kanpoan ez zan edurrik eta laino bitargi batzuetatik eguzkiak urten eban.

Edurra apur bat urtu zanean eta lurmen egoala ikusi, artzain biak, hartu ardiok eta etxerantz mobidu ziran.

Supilaur koba itxiaz batera, han agertu zan txori baltz piloa! Ha zan izatekoa! Han egoan zaratotsa! Hareek ziran hegoen pliplapleok!

Txori baltzak koba artzain barik eta kandela bedeinkatu barik ikusi ebenean, ez eben behar sartzeko esaterik, ahalean sartu ziran sartu ere.

Artzainak, biak joiazan aitearenka, zaharra, nahiz eta entzutea euki, inoiz ere ez ebalako holakorik ikusi, eta gaztea, beretzat dana barria zalako.

Joanean-joanean sustu-sartua kenduz-kenduz joan jaken artzain biei eta egurdi artean heldu ziran etxera ardi eta guzti.



**Adierazi:** Agertu.  
**Ahalean:** Ahal denik eta arinen.  
**Aitearenka:** Aitaren egiten.  
**Artean:** Aurrean.  
**Ataka:** Atea.  
**Bitargi:** Laino bitarteko eguzkia.  
**Egurdi artean:** Egurdi aurretik.  
**Eragoion:** Egiten ebilen.  
**Eratsi:** Batu.  
**Gauza:** Kapaz.  
**Goitik-behetik:** Gaitik.  
**Hanka egin:** Alde egin.

**Harri-kanpaiak:** Goizekoak, alba-koak.  
**Igaro:** Pasatu.  
**Josita:** Beteta.  
**Loak bota:** Loak hartu.  
**Lurmen:** Edurra urtutako lurra.  
**Morral:** Lepoko zakua.  
**Parte txarrekoak:** Inpernuakoak.  
**Sustu-sartua:** Sustu handia.  
**Txanka:** Hanka.  
**Txapa-txapa:** Arin-arin.  
**Zakuto:** Zaku txikia.

# **Supilaur - Kobako Brebiarioa**

Gorbea azpiko herritxo baten abade bi bizi ziran eta egun baten Gorbea ondoan dagoan Supilaur koba ikusteko gogoia etorri jaken.

Koba hori entzute handikoa zan eta zaharren esateetarik hainbat gorabehera jazotakoa.

Igande arratsalde baten, abade biok, euren eleiz-beharrak eginda gero, koba horretarantz abiatu ziran euren brebiarioak besapean ebezala.

Bide erdian artzain gazte bat aurkitu eben eta abadeetariko batek esan eutsan:

—Supilaur koba non dagoan badakizu?

—Baina, jauna, jakingo ez dot ba?

—Ba, guk ez dakigu biderik eta geugaz bazentoz asko poztuko ginateke.

—Ba, jauna, hori baino ez bada, pozik lagunduko deusiet lagundu ere.

Handik aurrera, hirurak joiazan gora eta gora abadeak itaunka eta artzaina erantzutzen mendi kontuan abadeak baino gehiago ekian eta.

Abade biok sotana magalak eskuaz harturik gorago eta nekatuago joiazan, puzka eta puzka bide guztian, orpoetan ur-batuak urtenda.

Kobara heldu ziranean eta aho ahoan sartu, abadeak ikaratu egin ziran baina artzainak ondo ezagutzen eban lez toki hori, hartu zakutotik kandela bat, biztu argi egiteko eta barrura sartu ziran.

Ikusi, ez eben gauza handirik egiten baina aurrera joiazan artzaina aurretik dala.

Barruratxu sarturik egozanean, kandlea berez amatauzan eta artzainak esan eutsen:

—Hemendik aurrera ezin gara joan!

—Zergaitik ez ba?

—Ba, nik neuk beti entzun dot kandlea amatatzen



Amesbury

danean kanpora urten behar dala eta ez dot entzun inor aurrerago joan eta biziagaz urten dauanik.

—Holan bada, goazen kanpora bake bakean! —inoen abade biak.

Kanpora urten ebenean kobaren atakan jarri ziran zigarro bat erreaz-erreaz ingurumariko ikuspegi ederra gozatzeko.

Itxasorainoko guztia ikusten zan eta denbora igarri ere egin barik joan jaken.

Iluntze aurretxean etxerantz mobidu ziran eta hirurak hiruretara baetozen mendia behera.

Artzainaren txabolara heldu ziranean abade gazteak esku biak burura eroanik badino:

—Ene! brebiarioa ahaztu dot kobaren ataka atakan!

—Jauna, ez beite arduratu neu joango naz eta berorrek ez bedi odol txarrik egin! —erantzun eban artzainak.

—Bai, baina ia gaba da eta haronakoa egin orduko gautu egin behar deutsu!

—Ez beite ikaratu, guk artzainok begiak itxita ere badakigu bidea.

Artzaina orpoetan har barik joan zan joan ere ko-barantz baina heldu orduko gautu egin jakon. Hainbat eleizetako abemariak ere entzun ebazan eta erreztatu ere bat baino gehiago.

Kobara heldu zanean, han egoan brebiarioa baina ez bakarrik, kobaren ataka guztia txori baltz endemoniñoz beterik ez eban ikusi ba!

Ha zan izatekoa! Sekula ere ez eban ikusi halakorik eta bildurkilik egoan gure artzain gizajoa.

Halan eta guztiz ere, hartu brebiarioa eta pausu batzuk emon ebazanean, txori baltz endemoniñook guztiz kanpora urten eben errasturik itxi barik.

Artzaina harriturik egoan, ezer ulertu ezinda. Ingu-ruetara ondo begiratu eta txoriok barrero etorrian ere, brebiarioari esku biekaz heldurik mendia behera etorren.

Txabolara heldu zanean han egozan abade biok sutondoan ezarrita eta brebiarioa ahaztu ebanak badinotso:

—Arin ere egin dozu haronakoa?

—Bai, jauna, baina zer jazo jatan baleki!

—Zer?

—Ba, kobaren atakan txori baltz pilo bat aurkitu dot urten gurean eta urten ezinik, baina ez dira izan parte oneko txoriak, sekula ikusi bakoak izan dira, eta eskuetan dakardan liburu hau hartu eta mobidu nazanean oinaztua legez urten dabe danak kanpora.

Hori entzutean, abade zaharrenak, artzainari lepotik eskua bota eta esan eutsan:



—Ez ikaratu! Horreek txoriok «parte txarrekoak» dira. Abemariatatik harri-kanprietara bitartean ibilten ei dira. Baina ez bildurtu! Horreek parte txarrekoak animalia askoren itxuran agertzen ei dira baina kristau edo kristauen ezaugarri baten aurrean ez daukie podererik eta ezin dabe ezer egin. Zuk koba aurrean ikusi dozuna ez da horixe baino. Brebiarioa otoitz liburu bat da eta ataka atakan egon danez, ezin izan dabe urten kanpora txori baltzok.

—Ba, horixe jazo da, berorrek esan dauan letxe! Hau guzti hau jakin izan banau ez nintzan bildurtuko, ez horixe!

Jazoak jazota, hirurak egozan pozez beterik. Abadeak euren esker ona agertu eutsen artzainari eta artzainak ohi-tura zan legez txapela kendu, eskuan mun emon eta beste baterarte agurtu ebazan abade biok.



**Astindu:** Batera-besteraka.  
**Baleki:** Bazenki (zuka).  
**Bedi:** Egizu (zuka).  
**Beite:** Zaitex (zuka).  
**Bildurkilik:** Bildurrez beterik.  
**Brebiarioa:** Abadeen eguneroko otoitz-liburua.  
**Dauan:** Dozun (zuka).  
**Deutsiet:** Deutsuet (zuka).  
**Endemoniño:** Handia.  
**Etor ian:** Zein etorri.

**Ezaugarri:** Zeinale.  
**Haronakoa:** Hara eta honakoa.  
**Ingurumari:** Inguru.  
**Letxe:** Legez.  
**Magalak:** Barrenak.  
**Mendia behera:** Menditik behera.  
**Odoltzarra egin:** Larritu.  
**Orpoetan har barik:** Arin.  
**Ozta-ozta:** Asko kostata.  
**Sekula:** Inoiz.  
**Ur-batuak:** «Anpollak».

## **Arimen Gau - Ibilteak**

Behin baten, eskeko bat ebilen etxerik etxe eskean eta gauiluntze baten elezportalera joan zan gaua egiten.

Ohituta egoan zaratak entzuten baina gau haretakoak inoiz entzun bakoak ziran.

Eskeko hau asko ikusia zan, baina badaezpada pater noster bat errezau parte txarrekoak uxatzeko eta loari emon eutsan.

Loak hartu baino ez eta barriro zaratak, geroago eta handiagoak.



Bat ere nagikeria barik jagi zan jagi ere gure eskekoa, inguru guztietara begiratu eta inor ere ez. Erdi etzunda jarraitu eban apur baten eta zarata artean berbalots ikaragarri bat ez dau entzuten ba!

Ha zan larrialdia! Eskekoak ez ekian zer egin. Laguntza-kapaiak jotea ere etorri jakon burura baina ez zan ausartzen zein herritar guztiak sustoz iratzartu.

Halako baten ha berbalots ikaragarria ondo ondoraino heldu jakon eta gehiago pentsatu ere egin barik badino:

—Jesus, Maria eta Jose! Zer Jaungoiko jazoten da hemen? Aitearen eta Semearen...!

Gaua berez ere ixila da baina ha zan ixiltasuna! Eskekoa zutunik, arnasea ere ebagita eta non entzuten dauan:

—«Gaua gauezkoentzat, eta eguna egunezkoentzat!».

—Baina, nortzuk zarie? —inoan eskekoak dar-dar—.

—Gu, munduko eginbeharrak ondo bete barik hildako arimak gara, eta emen gabilz eleizarik eleiza gauak dituan ordu guztietan geure penitentziak betatu arte. Hemengo hori egin dogu eta orain bagoaz beste eleiza batera.

—Bijon daizuela! —erantzun eutsen eskekoak zeozer esatearren—.

Arimak alde egin ebenean eskekoari logureak guztiak joan jakozan eta gauaroa luze ere luze egin jakon.

Hurrengo egunean eguzkiaz batera jagi, barauskarri apur bat jan eta barriro eskean.

Ateak jotzen ebazan etxe guztietan kontatzen eban jazoetako guztia eta herritarrak sinistu egiten eutsien, izan ere, eskeko zintzo eta esker onekoa zan eta.

Heldu zan hurrengo gauiluntzea baina gure eskekoa ez zan gauza barriro elezportalera lo egiten joateko eta herrian goratxu egon arren, hara, goiko ermita batera joan zan gaua egiten.

Etzun zan ba lo egiteko baina loa baino bezperako jazoerak arinago etorkiozan gogora. Halan eta guztiz ere, egonean-egonean loak bota eban gure eskeko gizajoa.

Loaldi bat egin eta gero, gizonezko baten berbalotsa entzun eban eta basajaunen bat edo beste izango zalakotan «Aitearenka» hasi zan baina berbalotsak bardin bardin eragoion:

—Nor dabil hor? Zazpi estatuz barruan ez zaitez hurreratu, —inoan eskekoak.

—Neu naz, urlia, —erantzun eban gizonezko batek—, eta hemen nabil hainbeste urtean eleizarik eleiza eta ermitarik ermita penitentzia betatu arte.

—Bakean bazatoz, erdu honago! Zer ofrezimentu dakastazu?

—Ba, ezkonduz gero barikuero haragi gura dana jaten ibili nintzan eleizako buldea ordaindu barik.

—Buldea esan deustazu?

—Bai, gaur ez dago holakorik baina lehenago eleizeak buldea erosi ezik garizumatik kanporako barikuetan ere bijilia gordetzen behartu egiten ginduzan.

—Eta hori da guzti hori?

—Bai zera, hori bakarrik balitz! Azken zazpi urteetako neure ondasunen hamarrenak ere zor ditut.

—Hamarrenak dinostazu?

—Ez dakizu ala? Gure aldian, geure ondasunen hamarrenak ordaindu egin behar izaten geuntsazan eleizeari, gaur ez daukazue holakorik baina.

Horrezaz gainera badaukat ba nik neuk beste bete-behar bat ere argitzeko.

—Zein da ba?

—Zuk ez dakit jakingo dozun, baina baten batek bere biziz dirurik gordeko baleu, hil baino lehenago sendikoren bat jakitun ipini behar dau. Nik neuk hamaseiko gorri batzuk gorde nituan etxearen aurrealderdiko erresuman eta gorde beharraren gorde baharraz inori ezer esan barik hil nintzan. Zeuk esango bazeuntso gurekoren bati?

—Bai, pozik ere.

Eskekoa bihotz onekoa zan eta arima errukarriari laguntza opatuz badinotso:

—Bihar goizean abadearengana joango naz eta neuk ordainduko deustat zure zorra.

—Bai? Hori guzti hori egingo deustazu ba?

—Bai, eta pozik gainera. Ni neu ere herritarren esku-zabaletasunetik bizi naz eta neuk ere eskuzabala izan behar dot. Orain zoaz lasai eta bihar gauean hementxe bertan itxarongo deustut.

—Ze ederto! Ez dakizu zelako poza emoten deustazun! Bihar gautuaz batera hemen izango nozu.

Hurrengo goizean eskekoa orpoetan har barik joan zan herriko eleiza nagusira meza aurretik abadearekin egoteko asmoz.

Harri-kanpaiak jo eta lasterrera agertu zan abadea ere sotanotsean eta badinotso eskekoari:

—Zer egiten dok hemen hain goizetik?

—Ba, jauna... honantxe eta honantxe zeruan sartu ezinik dagoan arima bat agertu jat eta errukia emon deust.

—Eta hik heuk zer esan deustak ba?

—Ba, jauna, neuk ordainduko deustadazala berorreri bere zorrak.

—Prest bahago ondo jagok. Hator sakristiara eta kontu liburuak ikusiko joaguzak.

Joan ziran ba abadea eta eskekoa eta banan-banan arakatu ebezan arakatu ere kontu-liburu guztiak ha urliaren izena aurkitu arte.

Egia zan izan ere, buldak erosi barik eta hamarrenak ordaintzeko eukazan euki ere baina dana ere ez zan bost hogerleko baino.

Abadeak eskekoaren on egingurea ikustean badinotso eskua lepora botata:

—Begiratu heik, honeek gauza honeek antzinakoak dozak eta gaur ez jaok holakorik, horregaitik ba kituen hago.

—Jauna, baina zorrak zor dira eta diru hau hartuko baleust hoba.

—Tira ba, hartu hartuko deuat diru hori baina herriko beharrizanetarako itziko joat.

—Jauna, ez daki berorrek urliaren arimea ze pozik geratuko dan.

—Baina barrero ere ikusiko dok ala?

—Bai, gaur gauean barrero ikustekotzat gagoz hor goiko ermitaportalean.

—Aitearen eta Semearen...! Kontuz ibili hadi gero!

—Zer ba?

—Ba, oraingoan arimeak bere eskua luzatuko deua



agurtzeko baina kontuz! Hik heuk behintzat ez heio-  
kemon eskurik zapi baten batuta ez dadok, entzun deus-  
tak?

—Bai, jauna, lasai egon beite, berorrek esan deustana  
egingo dot.

Eskekoa pozik egoan bere zereginetariko bat bete eba-  
lako baina beste bat eukan oraindino egiteko eta denpora-  
rik galdu barik behingo baten heldu zan arima horren  
etxaldera eta:

—Eup!

—Bakean zatoz? —itandu eutsan etxeko andreak—.

—Bai, baketsuago ezin.

—Zer dakazu ba?

—Ba, atzo gaez, honantxe eta honantxe urliaren ari-  
mea agertu jatan eta etxe honetan bizi zalakoa esan deust  
abadeak.

—Jesus, Maria eta Jose! Hori gizon hori nire aitaren  
aitita zan eta, ikusten dituzu horrek horma zaharrok,  
hortxe bizi zan baina neu ume nintzala, inizitu batek jo  
eta erre egin jakun etxea. Gero nire gurasoak eta, herri-  
tarren laguntzaz barri hau egin eben. Sugerte txarra izan  
genduan izan ere, goizetik gauera ezer ere barik geratu  
ginan. Inguruko herrietakoak ere lagundu euskuen baina  
holango kasuetan dana ere gitxi izaten da. Zer egingo dogu  
ba! Badaroagu bizimodua aurrera eta!

—Bai, neu ere hortik pasatuta nago, baina tira, aldatz-behera bako mendirik ez dago eta nik dakartsudana ez da barri txarra.

—Zer dakarzu ba?

—Ba, atzo agertu jatan zuen senide hori dirutxuak eginda hil ei zan seguru.

—Bai, seguru, neuk ere entzutea daukat baina besterik ez, guk geuk ez ditugu diruok ikusi ere egin.

—Zelan ikusiko zenduezan ba? Ezin ikusi, gorderik eukazala hil zan eta. Bai, atzo berak esan eustanez, etxearen aurrealdeko erresuman dagoz diruok.

Etxeko andreak, deitu beste guztiei, eta jakitun ipini ebazan. Gero gizonezkoen artean hartu eskeilara luze bat eta ormea gora hasi ziran.

Handik arakatu hortik arakatu, hara han non aurkitzen dabezan diruok eta ez edozein modutakoak, urre gorrikoak, hamasei eta ehun erleko gorriak.

Eskekoak bete eban ba bere zeregina eta eskean eragoin gaua heldu arte.

Gauiluntzea heldu zanean ermitarako bidea hartu eban arima errukarriari zorientasuna emoteko.

Ermita portalera heldu eta txitxiburduntzi egiten egoa-la, tin-tin! tin-tin! abemarietako kanpaiak.

Gure eskekoak jateari itxi, txapela kendu eta «Angelus» errezeteari emon eutsan.

Abemarietako kanpaiok amaituz bat batera agertu jakon agertu ere bezperako arimea eta badinotso:

—Egin deustazu ezer ala?

—Bai, dan dana!

—Eta nik orain zelan ordainduko deustut ba hau mesede handi hau?

—Zu ez arduratu, zoaz zeure bidean eta bijon daizula.

—Besterik ez bada ere, bota daiguzan eskuok alkar agurtzeko!

Eskekoak abadeak esana gogoratuz, linozko zapi bat hartu, eskua batu eta pozarren luzatu eutsan eskua arimeari gaueko iluntasunean.

Hurrengo goizean, beti lez, jagi zan gure eskekoa eta arimeari eskua emoten erabili eban zapia egun argiz ikusi ebanean badino:

—Zer jazo jako bart lino-zapi honi arimearen bost hazamarren erre-markea dauka aldean eta? Holakorik! Abadeak zergaitik hagaitik esango eustan kontuz ibilteko!

Eskekoak, erre-markadun zapi hori hartu eta etxerik etxe erakusten eragoion danak sinistuten eutsielarik.

Gaurko egunetaraino ere heldu da jazoera hau baina ipuin legez bakarrik. Mundua aurrera doa eta lehenagoko siniskera batzuk ez dira lehen lez onartzen baina lehenagokoen bizimodua argitzen deuskue, nahiko ez da ba?



**Arakatu:** Begiratu.  
**Ausartzen:** Atrebitzen.  
**Bart:** Atzo gabean.  
**Behingo baten:** Arin.  
**Beite:** Zaitetz (zuka).  
**Barauskarri:** Gosari.  
**Berbalotsa:** Berba edo hitz egiten.  
**Betatu:** Bete.  
**Bijon daizula:** Ondo ibili.  
**Bota:** Emon.  
**Buldea:** Paper bat.  
**Dar-Dar:** Ikaratuta.  
**Dirutxuak:** Diru asko.  
**Eragoion:** Jarraitzen eban.  
**Erdur:** Etorri.  
**Erresuna:** Ormearen gana.  
**Eskuzabala:** Emoten dakiana.

**Estatu:** 125 pausu.  
**Gauaroa:** Gaua.  
**Gauza:** Kapaz.  
**Hamaseiko gorria:** Lehenagoko diru mota bat.  
**Hamarrenak:** % 10.  
**Harri-kanpaiak:** Egunsentikoak.  
**Haragi:** Okela.  
**Inizitua:** Laino arteko txispea.  
**Inoan:** Esaten eban.  
**Kituen:** Zor barik.  
**Loak bota:** Loak hartu.  
**Orpoetan har barik:** Arin.  
**Urlia:** Fulano.  
**Uxatu:** Alde egin erazo.  
**Zergaitik hagaitik:** Zeozergaitik.



# Abade Ehiztariaren Txistuotsa

Lehenago, abade bat bizi ei zan Gorbea inguruko herri txiki polit baten.

Herri horretan ez zan bizi jente handirik ere eta bizi ziranak ez eutsien bat ere buruko minik emoten euren abadeari.

Eguneroko mezea goitik-behetik, astitsu egoten zan beti eta denporea emon ezinik egon ez egiteko, egun baten Eibarrera joan eta eskopeta eder bat erosi eban ehizarako.

Eskopetea ondo erabilten ikasi ebanean, ehiza-txakur bat bila hasi zan baina abadearentzat herrian ezetzik inork

ez eukan lez, behingo baten emon eutsazan erbi-txakur bi ehiztari famatu batek.

Baserritarrak lan eta lan ebilzan bitartean, abadea pim! paum! tirohotsean basorik baso.

Urteak joan urteak etorri, inguruetako ehiztari famatuenak baino hobea egin zan gure abadea.

Ez egoan ez basaurdarik, ez basahuntzik, ez erbirik ez ezertariko txoririk hari abadeari eskapatzekorik.

Kontuak atera norainokoa izango zan. Gorbea inguruan urteroko otso-ehiza egiteko ohiturea egoan.

Herri guztietako gizonezkoak alkar hartu eta behetik gora uxatu egiten ebezan otsoak Gorbeako haitz bitarte baterantz.

Ba, hantxe, haitzaren punta puntan alkartzen ziran ehiztari famatuenak abadea aurrenengo zala otsoak helduala hiltzeko.

Bildurgarria izaten ei zan otso-ehizea. Otsoak arin ere arin egiten eben gorantz goian zerk itxaroten eutsien jakin barik.

Otso batzuk besteak baino bizkorrago igoten eben baina gora heldukeran pim! paum! parra-parra jausten ziran otsook alaurika eta beste ehiztariak bana hil orduko hak abadeak hiru-lau botaten ebazan huts bat esanda bera ere egin barik.

Arrezkero, famatua egin zan abade heiztaria eta berez-berez, eleizako beharrak baino eskopeteak gehiago tiratzen eutsan gauza onerako.

Inguruetako abade-lagunak ere botaten eutsiezan iterantzun batzuk okerreko bidea hartu ebala esanaz, baina alperrik, abade ehiztariak entzun eta gor.

Igande baten, goizean goizetik jagi, eskopetea eta txakurrak hartu eta erbitan joan zan abade ehiztaria.

Euria egin barri egoan eta han ebilen garotzarik garotza sotana magalak busti-busti eginda...

Inoiz baino gehiago ibili eta erbirik bazan ere ez. Beste apur baten ekin eta bardin, orduak barriz aurrera.

Halako baten, zer, eta non entzuten dituan hamarrak kanpantorreko erlojuan.

Erbi bat esan eta bera ere harrapatu ez egiteak guztiz mindu eban abadea eta bere burua zeozertzat eukan lez, txakurrei bota eutsien errua gedar eginez:

—Alper pare hori, gaur gatzetarako ere ez dozue egin, zotzalbo ere ez, ganorabakook halangook! Ni neu banoatzue meza nagusia emoten eta zuek zeuek hortik zehar joan baino ez daukazue, aurrekoa lotsatuteko baino ez zarie eta!

Txakur biak buztana hankapean sarturik eta burua makurtuta joan ziran hainbaterantz abadearen bekoki iluna ikusi ondoren.



Abade ehiztaria inoiz ez moduan joian joan ere etxe-rantz bepuruak astun baino astunago ebazala.

Etxera heldu, eskopetea gorde, soinekoak aldatu eta inori egunonik ere esan barik sartu zan eleizan.

Hasi eban hamaiketako meza nagusia eta dana zan latin laprastadea. Sermoia ere inoiz baino gogorrago egin eban eta inon diranak esan ebazan esan ere.

Eleiztarrak ezer ez ekien lez, aitearenka ebilzan, ahorik askatu barik, eztulik ere egin barik.

Meza erdi inguruan egozala, iii!-auuu!, iii!-auuu!... txakur ahausiak entzun ziran kanpoan.

Herritarrak ez eutsien jaramonik ere egin baina abadeak laster ere laster ezagutu ebazan bere txakurrak eta entzun ere erbia irrintzaka.

Mezea ere gelditu egin eban eta han ebilen tipirrika altare aurrean zer egin ez ekiala.

Borroka gogorra eukan euki ere abadeak bere bihoztean, kanpora joan gura erbia hiltzen baina mezea amaitu barik oraindino.

Eztabaida horretan egoala, arteak ere hartu ezinda, badino berekautan:

—Zer arraiio! Dana bertanbehera utzi eta berandu egin baino lehen noian eskopetea hartu eta erbi hori hiltzen.



1800/05/10/11

Esan eta egin. Inizitua lez urten eban eleizatik meza entzule guztiak ahoa zabalik utzita.

Inork ere ez eban ezer ulertzen eta abadea burutik egiten hasi zalakotan egozan.

Abadearen serorea ere han egoan baina hark ere ez eban inoiz ikusi abadea orduan lez.

Herritarrak ezertarako ere ez egozan abade barik. Batak hau egin behar geunke, besteak bestea egingo bagendu hobe... azkenean, serorea bera aurretik zala, erro-sarioa errezeteari heldu eutsien.

Sakristaua koruan sugertatu zan diru batzean abadeak alde egin ebanean eta beste guztiak errosarioa errezetan eben bitartean, utzi plater diru hori han bazter baten eta kanpantorrera igon eban zer zan edo zer ez zan ikusten.

Sakristauak esku biak eroan ebazan burura abadea eskopetea hartu eta erbiaren atzean arineketan ikusi ebanean.

Ha zan ikustea! Erbia arin, txakurrak ere ez astiroago eta abadea mihina aterata atzerikara!

Luzaroan ibili ei ziran solorik solo, basorik baso eta mendirik mendi eta azkenerako gerizarik ere ez.

Sakristaua kanpantorretik bajatu eta ikusitako guztia kontatu eutsenean beste guztiei eleizeak ere ez ebazan hartzen bildurraren bildurraz.

Han ez egoala zereginik eta, abadearen alde Pater Noster bat esan eta laster hartu ebezan hartu ere euren etxeok.

Egunak, asteak, hileak, urteak igaro ziran eta ha abadea ageri ez.

Zahar eta gazte danak bizi ziran bildurkilik zein egunen baten abade horregaz topez tope egin.

Gizaldiak joan gizaldiak etorri, abade ehiztaria ez ei zan gehiago ikusi baina abade-txakurrak bai. Zaharren esateetatik askok eta askok ikusi ez baina entzun entzuten ei ebezan abade-txakurrok iii!-auuu! iii!-auuu! han diralakoan hemen, mendi batetik bestera haizea eta euria zanean.

Urteak eta urtekarrenean, ohitura zan lez, misinoiak egin ziran herrian Aste Santu aurretxean.

Misiolari ona egoan egon ere orduko urtean eta arima bat ere ez zan geratu bere berbaldietara joan barik.

Konfezino eguna ere heldu zan eta hain eukan on itxurea misiolari horrek, danak gura eben beragaz konfesatu baina asko itxaron behar.

Paskoazkoa egiteko asmoa eukan gizonezko bat ere joan zan konfesetan iluntze baten eta hainbeste egozala itxaroten ikustean badino bere artean:

—Gaur ez dago honegaz konfesatzerik eta noian herriko tabernara zati baten behintzat geroago etorrira ere autortu ahal izango naz eta.

Joan zan ba tabernara eta jakina, lagunak lagun zakioz, belu egin jakon. Halan eta guztiz ere badoa eleizara eta heldu zanerako misiolaria alde eginda.

Bere burua bakarrik ikusi ebanean, ikaratu egin zala uste dozue? Bai zera, jarri, eraz eukan jarleku baten eta badino:

—«Orain etxera joan beharrean, hortxe koru bazterrean egingo joat lo gaurkoagaitik eta bihar goizean lehenengo izango nok autortzeko».

Joan zan ba lo egiten eta barrua bero eukanez ez eban behar mantarik gainerako.

Gauetako hiru abemariak eta salbea errezatu orduko lo arrantzaka egoan gure gizona.

Gaberdi ingurumarian, zarata batzuk entzun ebazan gure koruko lotiak. Arin zutundu zan zutundu ere. Danera begiratu eta begiratu egoala, KRASK!-KRASK! eleizako ateak zabaldu ebazan baten batek eta tipi-tapa! pausuak.

Pausuotsa gelditu zanean, PLIST-PLIST! eleiza aurreko argiak biztu ziran eta, ene! abade bat zan, zahar zaharra eta ezezaguna.

—Zer Jaungoiko egiten jok horrek abade horrek hemen honetan tertzio honetan? —inoan bere artean—.

Bien bitartean ha abadea sakristiara joan, meza erropak jantzi, altara aurrera etorri, inguru guztietara begiratu,

barriri sakristiara joan, meza erropak erantzi, argiak amatau eta kanpora joan zan.

Ezer ulertu ezinik egoan koruko gizona eta mozoloak eurak baino begi zabalagoekaz igaro eban gauaroa.

Hurrengo goizean inoiz baino goizago etorri zan misiolaria eta gizon hori han ikustean badinotso:

—Zelan etorri zara ba hain tertzioz?

—Ba, jauna, honantxe eta honantxe nago atzorik hona, baina gaberdian zer ikusi dodan baleki?

—Zer ikusi dozu ba?

—Ba honantxe eta honantxe abade bat, eta hauxe eta hauxe ginik kanpora urten dau.

—Oño! Gaur gauean geratuko zinake barriri?

—Bakarrik ez, orraitino!

—Ba, neuk lagunduko deusut.

Hurrengo gauean biak koruan egozala non agertzen dan barriri abade hori!

Misiolariak ha abadea altare aurrean ikusi ebanean, jatsi korutik, joan bere ondora eta mezea eraso eutsan.

Mezea amaitu ebanean badinotso abadeak irribarrez misiolariari:

—Erbiaren atzean joatearren meza bat emon barik hil nintzan eta berrehun urtean ibili naz hona etorten baina mezea erasoteko inor ere barik aurkitzen izan nazan ez-kero, mezea emon barik joan behar izaten izan dot. Gaur ostera zeuri esker emon dot meza hori eta orain banao zerura.

Euskalerra osoan zabaldu zan abade horren barri eta be-daunaldiz belaunaldi guganaino ere heldu da. Gaur guretzat ipuin bat da baina lehenagokoentzat ipuina baino ge-hiago. Garai bakoitza bere munduak darabil. Gaurko gure bizikera baten batzuk ere, ipuintzat hartuko dira etorki-zunean. Holantxe da bizitza!



**Alaurika:** Irrintzaka.  
**Arima:** Pertsona.  
**Arrezkero:** Ordutik hona.  
**Arteak ere hartu ezinda:** Artega.  
**Atzerikara:** Atzetik.  
**Autortu:** Konfesatu.  
**Baleki:** Bazenki (zuka).  
**Barriz:** Ostera.  
**Bazan ere ez:** Bat ere ez.  
**Belaunaldi:** Gizaldi.  
**Belu:** Berandu.  
**Bepuruak:** Begi-ganeak.  
**Bere artean:** Berekautan.  
**Bertanbehera:** Bertan.  
**Bildurkilik:** Bildurraz.  
**Burutik egin:** Zoratu.  
**Ehiza:** Kaza.  
**Ehiztari:** Kazari.  
**Eleizeak ez hartu:** Artegatu.  
**Entzun eta gor:** Kasurik ere ez.  
**Eraso:** Monagillo egin.  
**Garoa:** Bedarra euri tantakadakaz.  
**Gedar:** Zarata.  
**Gerizarik ere ez:** Ikusi ere ez.

**Goitik-behetik:** Gora-behera.  
**Handirik:** Asko.  
**Heldu:** Hasi.  
**Helduala:** Helduaz-helduaz.  
**Ingurumari:** Inguru.  
**Iterantzuna:** Aipamena.  
**Jatsi:** Bajatu.  
**Joatearren:** Joateagaitik.  
**Laprastadea:** Hitzak jan.  
**Lehenago:** Antzina.  
**Mezea Erasoa:** Meza emoten la-gundu.  
**Misinoiak:** Ejerzizio edo gogorjar-dunak.  
**Noian:** Joan naiten.  
**Paskoazkoa:** Urtean baten konfesa-tu eta jaunartu.  
**Serorea:** Abadetxeke andrea.  
**Tertzio:** Ordu.  
**Tertzioz:** Goizetik.  
**Tipirrika:** Urduri.  
**Uxatu:** Alde egin erazo.  
**Zotzalbo:** Ezer ere ez.



**Juan Manuel Etxebarria Ayesta**, Zeberiokoa, 1948 - XI - 2an jaioa dogu. Filosofiararteko ikasketak egin ondoren Derioko Seminarioan, Magisteritza egin euskun. Karrera barria zabalduz batera, Euskal Filologian lizentziatu jakun Deustuko Unibertsitatean,

ohorezko matrikula ateraz. 1988tik "Cum Laude" eta guztizko doktorea dogu Euskal Filologian "Zeberioharaneko euskeraren azterketa etno-linguistikoa" ikergaiaz.

Gaur egun, Euskal Hizkuntza eta Literaturako katedratikoa da eta Deustuko Unibertsitateko euskal Fonetika eta Fonologiako irakasle doktoraduko kurtsoa be azaltzen daualarik. Hamabost urteokaz, On Jose Migel Barandiaranen zuzendaritzapeko Bizkaiko ETNIKER taldekidea dogu. Euskeraren aholku batzordean be parte hartu dau eta Derioko Udako Ikastaroan be euskera bizia aztertzeko oinarriak eta metodologia irakasten dario.

Guzti honen ondoren, idazlea be badogu. Batez ere hiru arlo landu ditu: euskal linguistika, etnografia barruan etno-testoak eta ipuingintza Bizkaiera gaurkotuan.

Ipuingintzan asko idatzi deusku, (dozena bat liburutik gora) batez be gaztetxuentzat eta idazten dara-goio.

Lehendik be bai, baina batez be doktorego tesia burutu dauanetik, argi be argi ikusi dau euskera biziak daukan garrantzia euskeraren etorkizunerako. Euskalkiak **bizi** dira eta jakina, Bizkaiera be bizirik dago bere aberastasunean.

Juan Manuelek (Manuk) honeetan ipuinotan Bizkaiko herri-euskera bizia hartu dau eta gaurko Bizkaiera literaria jaso etorkizunera bideratzeko batasun zabal, aberats eta zentzundun baten bidean.